

DBH1 GIZarte: "Ni biziko nintzateke..." Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Eskainitako mapetan, hainbat kodetan emandako informazioa interpretatuz, lurraldeen kokapena zein ezaugarri fisikoei buruz eskatutako informazioa identifikatu eta emaitza laburki adierazi.</p>	<p>1.1. Erreferentzi-lerroak era egokian kokatu ditu mapan. 1.2. Emandako lurraldeak mapetan kokatu ditu, koordenatuak erabiliz. 1.3. Mapa mota desberdinen funtzioak ezagutzen eta identifikatzen ditu. 1.4. Zuzen erantzun ditu ordu-eremuen mapari buruzko galderak. 1.5. Mapa topografikoan zuzen adierazi ditu kokapen zehatz batzuen altitudeak, ala nola altitude desberdinen arteko desnibelak. 1.6. Eskala grafikoaz baliatuz puntu desberdinen arteko distantziak kalkulatu ditu.</p>
<p>2. Lurralde baten kokapen eta ezaugarri fisikoekin lotutako informazioa mapa digital baten bidez irudikatu.</p>	<p>2.1. Eskatutako informazioa mapa digitalean irudikatu eta partekatu du: - Mapa digitala sortu du eta izena ipini dio. - Ibilbidearen luzera kalkulatzeko aginduak zuzen eman ditu. - Eskatutako erliebe-elementuak mapan identifikatu ditu. - Sortutako mapa hartzailarekin partekatu du.</p>
<p>3. Hainbat euskarritan (irudiak, animazioak, testu idatziak, klimogramak, mapa tematikoak...) emandako datuak interpretatuz, klimari buruzko informazioa eskuratu eta digitalki erregistratu.</p>	<p>3.1. Eguraldi iragarpenaren okerrak identifikatu eta zuzendu ditu. 3.2. Kliman eragiten duten faktoreak eta horien ondorioak zuzen erlazionatu ditu. 3.3. Leku bakoitzeko klima zein faktorek baldintzatzen duen identifikatu du, emandako informazioa oinarritzat hartuta. 3.4. Klimograma osatu du, datu klimatikoak esparru digitalean txertatuz. 3.5. Lurralde bateko klimari buruzko informazioa eskuratu du klimograma aztertuz. 3.6. Klimograma erabilita lurralde bateko klimari buruzko informazioa eskuratu eta klima mota zuzen inferitu du. 3.7. Sortutako klimogramak ematen duen informazioa aztertuz lurralde horren klimaren deskribapen testua osatu du.</p>
<p>4. Ezarritako baldintzak eta leku jakin bateko ezaugarriak kontuan hartuz, haren egokitasunari buruzko ikuspegi arrazoitua adierazi.</p>	<p>4.1. Hautaketan egokitasunari buruzko iritzia arrazoitua eman du, ezarritako baldintzen arabera.</p>